

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak osasun-arreta pertsonei gehiago bideratzearen alde egin du Sistema Publikoaren Humanizazio Estrategiaren bidez

Banakako gelak paziente terminalentzat, Heriotza Duineko Behatoki berria edo Larrialdietako itxarote-denborei buruz informazioa ematea dira Estrategia berriaren jardura nabarmenenak

Asteartea, 2017.eko azaroak 7

Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren Humanizazio Estrategiaren helburua erabiltzaileek jasotzen duten tratuan gogobetetasuna hobetzea da. Lehentasunezko proiektu bat da Osasun Departamenturako, eta bost jardura-ildo nagusi barne hartzen ditu (humanizazioaren kultura, tratu egokia, informazioa-komunikazioa, ingurua egokitzea eta kudeatzeko zuzentarauak), eta hainbat jardura, hala nola banakako gelak bermatzea paziente terminalentzat, Heriotza Duineko Behatokia abian jartzea edo Larrialdi Zerbitzuetako itxarote-denborei buruzko informazioa ematea.

Gogoratu behar du urtero 55.800 ospitaleratze daudela Osasunbideko Ospitaleetan, batez besteko 5,9 egun ematen dituztenak. Bestalde, 5,4 milioi kontsulta baino gehiago daude Lehen mailako Arretan, 1,1 milioi baino gehiago arreta espezializatuan, 39.000 ebakuntza kirurgiko baino gehiago eta 725.000 baino arreta gehiago larrialdietan. Hainbat une eta prozesu pertsonal dira, giza elkarrekintza, teknikaz eta osasun teknologiaz harago jotzeko eta pertsonetara mugatzeko.

Gaur egun, biztanleek beraien profesionalekin duten gogobetetze-maila oso handia da, eta kontua da bikaintasunaren alde egitea, herritarren eta profesionalen gogobetetzea handiagoa izan dadin.

Humanizazio Estrategia Nafarroako Gobernuko



Barkos Lehendakariak eta Dominguez kontseilariak Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren Humanizazio Estrategia aurkeztu dute.



Bertaratutako publikoa.

Lehendakari Uxue Barkosek aurkeztu du gaur, eta harekin batera honako hauek izan dira: Osasun Kontseilari Fernando Dominguez; Osasun Departamentuko Osasun arloko Herritartasunaren, Aseguramenduaren eta Bermeen Zerbitzuko zuzendari Lazaro Elizalde; Osasunbideko Herritarren eta Pazienteen Arretarako Zerbitzuko buru Isabel Ansa eta Nafarroako Ospitaleguneko Osasun Zainketen zuzendari Maite Soria. Barkosek hauxe nabarmendu du: "laguntza humanizatzea funtzio profesionalen eta pazienteen beharren garapena harmonizatzea lortzea da, paziente edo pertsona bakoitza, eta ez gaixotasuna edo artatzen duten prozesua, arreta gune gisa hartzen duen arretara jotzea".

Era berean, Lehendakariak adierazi du gehien asetzen duena Estrategia hau dagoeneko errealitatea dela egiaztatzea dela. "Legealdi honetan dagoeneko urrats txiki asko eman dira ildo horretan, bereziki haurren arretaren humanizazioan, hala nola neurri hauekin: gurasoei eguneko 24 orduko laguntza bermatzea ZIU pediatriko berrian edo haurren ebakuntza-gela aurrekoan; Haurren Ospitalizazio Eremuko guneen egokitze ludikoa Nafarroako Ospitalegunean; gida-ipuina bat egitea Nafarroako Ospitaleguneko Pediatriako Larrialdietan behaketan dauden adingabeen laguntzaileei janari-zerbitzua ematea edo larrialdi pediatrikoen larrialdietako arretan eremuak egokitzea Tuterako Reina Sofía Ospitalean".

Ondoren, Barkosek konpromiso hartutako neurriak nabarmendu ditu, egoera mingarrienei erantzun onberago bat emateko: paziente terminalei banakako gela bermatzeko konpromisoa, borondate aurreratua erraztea, heriotza duineko behatokia abian jartzea eta ikuspegi aringarria eta laguntza emozionala bere gain hartzea prozesuaren faserik goiztiarretatik.

Nabarmentzekoa da Humanizazio Estrategia profesionalen, pazienteen, herritarren eta bestelakoen ekarpenei irekita dagoen dokumentu bat dela. Batzordeak eratu dira arretaren esparru desberdinetan 150 pertsona baino gehiagoren parte-hartzearekin. Horien artean boluntarioak, pazienteak eta senideak daude, sistemaren erabiltzaile gisa beren ikuspegia ematen dutenak.

Bost lerro estrategiko laguntza humanizatzeke

Berriazko helburu gisa Estrategiak osasun-sistema bideratzea du helburu, pertsonaren arretarantz, emandako tratua duintzea, humanizazioaren kultura sustatzea, beharrezko baldintzak sortzea garatzeko eta profesionaleri laguntza ematea. Bost jarduera-lerro barne hartzen ditu: humanizazioaren kultura, tratu berotasuna, informazioa-komunikazioa, ingurua egokitzea eta kudeaketarako zuzentarauak.

Lehen jarduera-lerroak humanizazioaren kultura sisteman hedatzearen alde egiten du. Etikako prestakuntza egin edo sustatuko da, pertsonen arteko harremanean, komunikazio-tekniketan, gatasketan eta doluari eta berri txarrei aurre egitean. Horrez gain, berriazko gaikuntza egingo da pazienteen hurbiltasunarekin zerikusia duten lanpostu garrantzitsuetarako, hala nola zainketak, onarpena edo informazioa. Bestalde, estiloko gomendioak idatziko dira, esparru jakinetako humanizazio-dekalogoak nabarmenduz, paziente bakoitza kontsultan hartzean egindako ekintzak edo protokoloa gela batean sartzean. Azkenik, pazienteen, herritarren eta boluntarioen parte-hartzerako antolatutako eremuak garatzeari lehentasuna emango zaio (Pazienteen Eskola, Osasun Eskola, ForoSalud foroa...).

Bigarren lerroa tratuaren berotasunari buruzkoa da. Jasotzea gustatuko litzazukeen tratua bera emateko beharri erantzuten dio, pertsonen osasun-sistemarekin harremanetan jartzen direnean duten ahultasuna kontuan hartuz. Berriazko helburu gisa adeitasuna sustatzea eta giza berotasuna hobetzea, pazienteen sufrimendua txikiagotzea, entretenimendua, aisialdia eta pazienteen kultura sustatzea, eta laguntza erraztea.

Zenbait jarduerari lehentasuna eman zaie, hala nola SUEÑON proiektua, lo egitea errespetatu behar dela sustatzeko eta 00:00etatik 06:30era bitartean ospitaleratuta dauden pazienteen gaueko atsedena errazteko; laguntzaileei laguntza-zerbitzuak ematea edo hobetzea (komunak, dutxak...); nortasun-txartelak erostea, artatzen den pertsona ezagutzeko; jaiotzaren arretaren humanizazioarekin eta edoskitzearekin (IHAN) zerikusia duten ekimenak bultzatzea; Heriotza Duinaren Behatokia garatzea, bizitzaren amaierako prozesuetan hobetzeko proposamenak aztertzeke eta egiteke; ospitaleratuta dauden pertsonen entretenimendua eta aisialdia sustatzea (ospitaleetako ekitaldi-aretoak erabiltzea filmak emateko, antzerki-emanaldietarako, eztabaidetarako, ipuin-kontalariak eta abar; ospitaleratuta dauden pertsonen

komunikabideak erosten laguntzea...).

Informazioa eta komunikazioa hirugarren lerro estrategikoaren barruan daude.

Pazienteei eta senideei emandako informazioaren kalitatea eta erabilgarritasuna hobetzeko helburuarekin zenbait jardura egingo dira, hala nola Konpromisoen Gutuna egitea eta hedatzea laguntzaren humanizazioarekin, eta humanizazio orokorreko dekalogo bat, eta jardura-esparru bakoitzarena; idatzizko materiala berrikustea eta egitea, ospitaleratzean, kontsultetan eta zenbait zerbitzutan entregatzeko, harrerari, gaixotasunari eta bere zainketei, laguntza-baliabideei eta bestelakoei dagokienez, eta baimen-prozesu informatuak berregokitzea.

Humanizazioaren benetako kulturaren garapenak, hura garatzeko baldintzak ematea eskatzen du, beraz, horretan laguntzen duten inguruak sortu behar dira. Inguru horien artean, laugarren jardura-lerroan daudenak, honako hauek barne hartzen dira: hesi arkitektonikoak kentzea, zailtasun bereziak dituzten pertsonen eskuragarritasuna errazteko neurriak; hobekuntzak seinalizazioan; lan-giroa hobetzeko ekintzak edo profesionalak identifikatzea.

Lehentasunezko ekintzak gisa hauek nabarmentzen dira: fase terminalean dauden pazienteei banakako gelak bermatzeko konpromisoa; lan-taldeak sortzea eta profesionalen, pazienteen eta zainzaileen parte-hartzeekin hobetzea, pazienteei emandako zerbitzuen zenbait alderdiri buruz; informazioa ematea Larrialdietan itxarote-denborari buruz; askotariko eskaintza garatzea janari-zerbitzuetan, egoera klinikoetara egokituta, hautatzeko gaitasunari irekita, kultura-ezaugarriei, erlijioari eta aukera pertsonari; eta maskoten bisitetarako edo laguntzarako eremuak gaitzea.

Azkenik, humanizazioaren kulturaren aldaketek zuzendaritza-estamentuen inplikazioa eta protagonismoa eskatzen dute. Kultura hori modu aktibo eta iraunkorrean bultzatzeko helburuarekin, humanizazioa Nafarroako osasun-sistemaren antolaketaren balio gisa sartu da, bosgarren lerro estrategiko gisa. Humanizazio-adierazleak gehituko dira kudeaketa-itunetan eta aginte-koadroetan humanizazio-dimentsioak barne hartzen dituzten informazio-sistemak garatuko dira.